



2. ERANSKINA. Hamabostaldiko erronka

Hamabostaldiko erronka

La educación para la igualdad como eje del currículo y las competencias básicas

M^a Antonia Moreno Llaneza

LANDU DIREN FUNTSEZKO GAITASUNAK:

HIZKUNTZA-GAITASUNA: alderdi hauek landuko dira:

- Gizarte-erabilerako testuak: aginduzkoa (sukaldaritzako errezeta, zeregin zehatzak egiteko jarraibideak) eta informaziozkoa (emakumeen eta gizonen etxeko lanari buruzko kazetaritza-albisteak).
- Ahozko aurkezpena: plangintza, prestaketa, materiala eta informazioa, informazioaren hautaketa, egitura, jarrera, keinuak, tonua, erritmoa, bokalizazioa, etab.
- Taldearen ahozko adierazpena, esperientzia amaitu ondoren ikasgelan ideiak trukatzean.
- PPTko diapositiben diseinua, kanpoko egiturarako hainbat formatu erabilia: argazkiak, bideoa, testua, izenburuak, etab.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA:

- Ordena eta pertsonak nahiz hitz egiteko txanda errespetatzea iritzi-trukeetan.
- Genero-aurreiritzi eta -estereotipoen aurrean ikuspegi kritikoa izatea, bazterkeria eta bidegabekeria sortzen baitituzte.
- Etxeko lanei balioa ematea, eguneroko funtsezko biziraupen-zereginak direnez, eta horiez arduratu diren pertsoneri balioa ematea.
- Sexuaren araberako lan-banaketaren bilakaera historikoa ezagutzea.

GAITASUN DIGITALA:

- Diapositiba-aurkezpenak erabiltzea ahozko aurkezpenari laguntzeko.
- Informazioaren teknologien aplikazio praktikoa gelako jarduera zehatz jakin batean.
- Proiektorea eta ordenagailu eramangarria prestatzea ppt aurkezpenerako.

AUTONOMIA PERTSONALAREN GAITASUNA:

- Etxeko lanak ezinbesteko jarduerak dira autonomia pertsonalerako eta eguneroko bizimodu independenterako (higienea, elikadura, norbere eta besteen zaintza, etab.).
- Baliabideak bilatzea eta oztopoak gainditzea, proiektu bat egiteko.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Autonomia eta hazkunde pertsonalerako garrantzi handia duten etxeko lanak egiten ikastea.
- Emakumeek mendeetan zehar egin duten lana ikusgarri egitea (besteak zaintzea eta etxeko lanak egitea).
- Etxeko lanei balioa ematea.
- Etxeko lanen gaineko estereotipo sexistak gainditzea.
- Gatazkak konpondu eta oztopoak gainditzea.
- Ahozko komunikazioa lantzea.
- Informazioaren teknologiak erabiltzea ahozko aurkezpenari laguntzeko.
- Testu mota askotarikoak baliatzea, irakurrizko ulermena eta idatzizko nahiz ahozko adierazpena hobetzeko.
- Komunikazio-eremuak sortzea nerabeen eta familien nahiz familiaren eta ikastetxearen artean.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak zertan datzan ulertzea.

PROIEKTUAREN GARAPENA

Planaren arabera, irakasleak, alegia, nik neuk, hurrengo hamabostaldian egiteko jarduera bat proposatzen nuen: familiari afaltzen ematea, haiek zainduta eta gelan aurretiaz eman den errezeta bat prestatuta (errezeta baliagarria da, halaber, jarraibide motako aginduzko testuak lantzeko); alkandora, kamiseta, galtzak eta maindireak lisatzea; entxufeak konpontzea, garbigailua jartzea, etab.

Jarduera hori hiru hamabostalditan egin dugu, Gaztelaniako eskoletan, hizkuntza-gaitasunari lotuta zegoelako (ahozko adierazpenarekin, zehazki). Beraz, Gaztelania eta Literatura sailak diseinatutako programazioan erabat txertatuta zegoen jarduera zen.

Proposatutako jarduera bakoitza dokumentatu egin behar zen, izan bidez izan argazkiz, eta, ondoren, gelan prozesu osoaren ahozko aurkezpena egin behar zen, diapositiba-aurkezpen batez lagunduta (jarduera egin izana frogatzeko).

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

FAMILIA-AFARIA:

Helburuak:

- 1- Prestatu familiarentzako afaria asteko edozein egunetan, zeregin guztiez arduratuta: osagaiak erostea, kozinatzea, sukaldea jasotzea, mahaia gertatzea, pertsoneri arreta ematea eta erabili den guztia garbitzea.
- 2- Maite ditugunei tratu ona eta arreta ematearekin hartzen den poztasunaz ohartzea.
- 3- Eguneroko janariez arduratzen direnen eta egunero zaintzen gaituztenen lana ikusgarri egin eta balioa ematea.
- 4- Proiektu orok aurrera eramateko dituen zailtasunei aurre egitea.
- 5- Informazioaren teknologiak erabiltzea gelako ahozko aurkezpenean.
- 6- Prozesu osoaren ahozko aurkezpen egokia egitea.
- 7- Sexuaren araberako lan-banaketa tradizionalarekin apurtzea, bereizketarik egin gabe emakumeen eta gizonen artean eguneroko biziraupen-lanetan eta autonomia pertsonalean.
- 8- Prozesu osoan sortu daitezkeen genero-aurreiritziak eztabaidatzea, baita ikasleen imajinarioko estereotipoak ere.
- 9- Azalpen-testuen ulermena eta ahozko nahiz idatzizko adierazpena lantzea: errezeta, jardueraren ahozko txostena.

Edukiak:

- 1- Pertsonen zaintza, tratu ona landuta, tratu txarra ekiditeko.
- 2- Autonomia pertsonala eguneroko biziraupen-lanetan: higiena, elikadura, norbere zaintza.
- 3- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Pertsona baztertzen eta iraintzen duten aurreiritzien eta estereotipoen aurkako borroka.
- 4- Ahozko aurkezpena. Ahozko komunikazio akademikoaren eta ezagutzen nahiz sentimenduen adierazpen eraginkorraren garrantzia. Hizlaritza.
- 5- Gizarte-erabilerako testuak: azalpen-testuak.
- 6- Powerpointa, ahozko azalpenen lagungarri.
- 7- Sexuaren araberako lan-banaketa.

Prozesua:

Jarduera guztietan antzekoa da prozesua; erronka aldatzen da, baina prozesua ez. Gelan, hamabostaldiko erronka proposatu zen, eta zer iritzi zuten galdetu. Erronka batzuetan, besteak beste, plantxaren kasuan, pertsona asko kexatu ziren. Halaber, jardueraren eta ahozko aurkezpenaren (powerpoint baten laguntzaz, eta egindakoa frogatzeko argazkiekin) datak finkatu ziren. Ondoren, galdetegi labur bat eman zitzaion, ahozko aurkezpena horretan oinarritzeko:

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

Egin beharreko jarduera	
Egin den data	
Jardueraren iraupena	
Jarraitutako prozesua	
Topatutako oztopo nagusiak	
Zalantzak nori galdetu zitzaizkion	
Jarduera egin bitartean izandako sentipena	
Jarduera egin ostean izandako sentipena	

Prozesua hasi eta buka gauzatzea da helburua, alegia, erronka bakoitzaren betebeharretatik batere ez dezaten egin gabe utzi: plangintza, prestaketa, gauzapena, bilketa, garbiketa, etab.

Ondoren, gelan, aurrez ezarritako datan, ikasleak ahozko aurkezpena egingo du, informazioaren teknologiez lagunduta, bere esperientzia azaltzeko. Horretarako, gehenez hamar minutu izango ditu. Gainerako ikasleek aurkezpenaren jarraipena egingo dute behaketa-fitxa erabilita. Azalpena amaitu ondoren, talde-hausnarketa egingo da aipatu fitxan oinarrituta. Gainera, eskola-ordu bat bideratuko da iritzi-trukera eta etxeko lanei eta horiek egiteari loturiko bizipenak elkarri azaltzera. Hala bada, bidea itxi behar zaie gelan ager daitezkeen genero-aurreiritziei eta -estereotipoei. Horretarako, nahitaez ezagutu behar da ikasleen imajinarioa edo mundu sinbolikoa; horregatik dira hain garrantzitsuak iritzi-trukera bideratutako eskolak.

FAMILIEN (BATIK BAT AMEN) IRITZIAK

Jarduerak iraun zuen bitartean, baita gero ere, ama askok egin zidaten bisita familiantzako tutoretza-orduetan. Aita batek bakarrik egin zidan bisita, baina, zoritxarrez, hori da legea bigarren hezkuntzan.

Esperientziari buruz egin zizkidaten iruzkinetan, harridura-sentipena da aipagarriena; ez zuten espero institutuak, eta, gainera, Gaztelania eta Literatura bezain ikasgai serio batean, horrelako proiektu batekin bidaltzea umeak etxera. Beraz, lehenik eta behin, argi eta garbi azaldu nien zer helburu lortu nahi nituen, hizkuntzari, herritartasunari, tutoretzari eta berdintasunerako hezkuntzari zegokienez. «Azaltzeko» behar hori familiengana –kasu honetan, amengana– hurbiltzeko eta ezagutza pertsonalerako eta profesionalerako estrategia bat ere bada; institutua eta familiak elkartzeko beste aitzakia

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

bat, ikasleen onerako. Proposamenak oso harrera ona izan zuen, eta, ohi bezala, familia uzkuerek ez zuten inolako interesik erakutsi, eta ez ziren tutoretzara etorri.

Poza ere adierazi zidaten, jardueran ere parte hartu ahal izan zutelako; prozesua dokumentatzeko argazkiak egin zituzten, eta haiengana (amengana) jotzen zuten neska-mutikoek laguntza eske; esperientziaren koprotagonista izan ziren gurasoak (amak). Gainera, seme-alabekin denbora gehiago egon ahal izan ziren, talde-lanean eta helburu berarekin; horrek bide eman zien ondo pasatzeari, hizketaldiei, aholkuei, eztabaidari eta bi-biek elkarrengandik ikasteari. Esperientziarekin, halaber, komunikaziorako espazio komun bat sortu zen, ez dena beti erraza izaten familietan. Gainera, ametako batzuk nire iruzkinei adi-adi egon ziren, «azterketa batean» baleude bezala.

Beste kontu garrantzitsuetako bat beren eguneroko lanarengatik aintzat hartu zituzten sentimendua izan zen: barne hartzen zituen eskola-proposamen bat, zeregin horietatik «libratzen» dituzten seme-alabak eta parte-hartze zuzena. Oso pozik zeuden, eta esker ona adierazi zidaten aukera hori emateagatik. Era berean, seme-alabei ematen ari zitzaizen heziketaz hausnartzeko aukera eman zien: ama batzuk ohartu ziren ez zietela uzten seme-alabei etxeko lanetan laguntzen, emaitza txarraren beldurrez, babeskeriagatik edo, besterik gabe, bururatu ez zitzaielako.

Azkenik, familiekin tratu hurbil eta adeitsua izateko aukera izan nuen, eta ikasturte osoan harreman arina eduki ahal izan nuen haiekin, taldearen jarraipenerako mesedegarria izan zena.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa, lehen esan den eran, irakaslearen eta ikasleen arteko iritzi-trukean oinarritu zen. Jarduera egin zuten neska-mutiko guztiek, euren harridurarako, poza hartu zuten familiakoei jaten emateak eta familiakoak zaintzeak dakarren guztiarekin. Era berean, etxeko lan batzuk oso zailak direla, eta lan eta denbora asko eskatzen dutela azpimarratu zuten.

Gainera, ahozko aurkezpenen ebaluazioak emaitza oso positiboa izan zuen, ahozko komunikazioan hobekuntza nabarmenak egin baitzituzten; bere esperientzia besteen aurrean azaltzeko motibatuta zeuden, eta jendaurrean hitz egiteari beldurra galduta. Emaitzak oso onak izan ziren, eta oso egoki erabili zituzten informazioaren teknologiak; izan ere, erabilera mekanikoa edo teknologikoa ez ezik, erabilera pedagogikoa eman zieten.